

**2015EKO MARTXOAREN 5EAN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Bosta.

HILABETEA: Martxoa.

URTEA: Bi mila eta hamabost.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak eta erdi.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: Koldo Agirre Mujika

BILDUAK:

- M^a Mar Celaya Gonzalez
- Aitor Larburu Izaguirre
- Asier Sarriegui Zumarraga
- Cecilia Herrador Garin
- Idoia Baztarrika Prieto
- Aitor Aldasoro Iturbe
- M^a Luisa Valles Fernandez
- Iñigo Arrese Artabe
- Leire Artola Ugalde
- Eva Diaz del Rio
- Encarna Arrieta Telleria
- Alfonso Segade Gonzalez
- Santiago Urdampilleta Dos Santos
- Josi Insausti Mujika
- Julio Herreros Serna
- Garbiñe Zurutuza Fernández

IDAZKARIA: bilera honetan Lurdes Alegria Lasa, kontuhartzaileak, idazkari lanak egiten ditu, Idazkaria bajan egoteagatik.

Alkate jaunak (BILDU): "Lehendabizi komentatu gai-zerrendan ez dagoen puntu bat tratatu nahi dugula, hain zuzen ere, Bareak Elkartek aurkeztutako mozioa.

Gai-zerrendan premiazko puntu modura sartzeko erabakia hartzea, Pleno honi dagokio eta hori da, hain zuzen ere, orain bozkatuko duguna.

Bozketa eginda, aho batez onartu, gaia premiazko modura tratatzea, eskaera eta galderen atala baino lehen.

1.- AURREKO AKTA. 2015eko urtarrilaren 29ko aktaren onespena.

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): *“Cuando el partido socialista respondía a la intervención del PNV, en el acta donde dice: “decía antes que no iba a entrar en el debate porque no es el momento ni el sitio. Es verdad que tenemos representantes en Sasieta, que ha habido reuniones y tenemos un partido centenario y muy respetado y con el que hemos hecho grandes acuerdos y seguramente lo seguiremos haciendo, pero esa no es la cuestión. La cuestión son las formas.”*

Debe decir: *“decía antes que no iba a entrar en el debate porque no es el momento ni el sitio. Es verdad que tenemos representantes en Sasieta, que ha habido reuniones y que el PNV, es un partido centenario y muy respetado y con el que hemos hecho grandes acuerdos y seguramente lo seguiremos haciendo, pero esa no es la cuestión. La cuestión son las formas.”*

Aldaketa horrekin, 2015eko urtarrilaren 29ko akta aho batez onartu da.

2.- 2015. URTERAKO BEASAINGO UDALAREN PLANTILA ETA LANPOSTUEN ZERRENDIA:

a.- Plantila eta lanpostuen zerrendaren aldaketa onartzea.

b.- Harrera Bulegoko koordinatzaile” eta “administrari/artxibaria” lanpostuen monografiak onartzea.

Alkate jaunak, 2015eko otsailaren 26ko Antolakuntza batzordearen proposamenaren berri eman du, hots:

“Kontuan izanik:

1.- *Agente plaza bat hutsik geratu dela (C1 taldekoa) bere titularrari ezintasun iraunkor absolutua onartu zaiolako (2015-02-06ko Gizarte Segurantzaren Ebazpena, 2014-12-24ko eragin datarekin).*

2.- *2015-01-21eko datan, “Herriarren arretarako bulegoko Koordinatzailea” plazaren titularrak, 2015eko irailaren 20tik aurretiazko borondatezko jubilaziorako baimena eskatu du, 2015-02-24ko Alkatetzaren aldeko Ebazpena ebatzi zaiolarik.*

3.- 2014-10-16ko Udal Osoko bilkuran onartutako Baliabideen Arrazionalizazio Programak ondorengo ezartzen duela:

“Beraz, langile baten aurretiazko jubilazioaren ondorioz lanpostu bat hutsik geratuko balitz, Administrazioak une horretan dituen beharren inguruan erreflexio bat egingo du baliabideak optimizatzeko eta honen emaitza izan daiteke aipatutako plaza hutsa hornitzea edo amortizatzea, ondorio horretara iritsiko balitz.

Erabakiko balitz plaza hornitu egin behar dela, hauetaketa modua aukeratzekoan ondorengo ordena jarraituko da:

- a) Langileak berresleitzea.*
- b) Barne promozioa.*
- c) Txanda irekiko Oposizioa edo Oposizio-Lehiaketa.”*

4.- *Administrarien eta “herritarren arretarako bulegoko koordinatzailearen plazak talde berdinekoak diren arren (C1), azken honek, burutzen dituen zereginak direla eta, ordainsari maila handiagoa du, beraz, aipatutako horniketa lehentasunaren arabera, barne promozio bidez egingo litzateke.*

5.- *Gobernu taldeak Harrera Bulegoaren berrantolaketa martxan jarri du bere funtzionamendua indartzeko eta honen ondorioz, beharrezkoa da “herritarren arretarako bulegoko koordinatzailea” eta bertako administrari lanpostuetako monografieta aldaketa txiki batzuk egitea, hau da:*

- “Herritarren arretarako bulegoko koordinatzailea”ren monografia. Artxiboko zereginei dagokiona kendu eta bere ordeztatu, KNOSIS artxibo aplikazioaren eta “Espedienten Kudeaketa” aplikazioaren ezagutzak. Lehenengo kasuan eskatutako espediente artxibatuak emateko, zeregin hau egiteko ardura duena ez dagoenean eta bigarren kasuan, interesatuek eskatutako espedienten informazioa eta dokumentuen kopia emateko.

- Herritarren arretarako bulegora atxikita dagoen administrariaren monografia. Postuaren izena administrari/artxibozaina izatera pasako da eta bere zereginak, Herritarren Arretarako bulegoan laguntza emateaz gain, baita ere izango dira artxibo orokorrarekin loturiko zeregin guztiak.

6.- *Giza baliabideen planifikazio politika egoki bat egoteak, plaza hutsik geratu baino aurreko hilabeteetan plazaren deialdia egitea eskatzen du, jubilazio kasuetan hain zuzen ere, postuaren betetzea garaiz eta behar bezala egiteko.*

Ondorioz, Antolakuntza Batzordeak Osoko bilkurara eramaten du ondorengo Akordio Proposamena:

Lehena. *Beasaingo Udaleko 2015. Urterako plantila aldaketa onartzea, bertan ager daitezen, gaur egun azaltzen diren gain, ondorengoak:*

- **Agente** baten plaza hutsa, C2 taldekoa dena.*
- **Herritarren Arretarako Bulegoko Koordinatzailearen** plazan, oharretan, ondorengo gehitu: titularren jubilazioa 2015-09-20an.*

Bigarrena. Beasaingo Udaleko Lanpostuen Zerrendaren aldaketa onartzea, bertan ager daitezen, gaur egun azaltzen diren gain, ondorengoak:

- Hutsik dagoen **Agente** lanpostu bat, C2 taldekoa.
- **Herritarren Arretarako Bulegoko Koordinatzailearen** lanpostuan, oharretan, ondorengoak aipatu:
 - o Titularren jubilazioa 2015-09-20an.
 - o Barne promozioz hornituko da: prozesuan hasiko da postua hutsik geratu baino lehen.
- Idazkaritza Sailera atxikita dauden bi “Administrari “ postuetatik, bat, **“Administrari/artxibozain”** deitzera pasako da.
Titulazioa: Goi batxileria eta ezagutzak artxiboan; eta oharretan ondorengoa aipatu:
 - o Herritarren arretarako bulegoko koordinatzailearen plaza hornitzeko barne promozioa amaitu ondoren, Beasaingo Udaleko plantilan dauden administrarien artean lehiaketa egingo da eta postua emango zaio puntuazio altuena lortzen duenari.

Hirugarrena. “Herritarren Arretarako bulegoko koordinatzailearen” lanpostuaren monografi berria onartu eta baita ere, administrari/artxibozain postuaren monografia.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu da.

3.- KONTRATUA LUZATZEA, Loinatz Egunekeo Zentroa kudeatzeko.

Ezagutzera eman da, 2015eko urtarrilaren 26ko, gizarte-ongizatearen proposamena, hau da:

“Loinatz Egunekeo Zentroa kudeatzeko Goxara S.L. enpresarekin sinatuta dugun kontratua 2015. urterako luzatzea; prezioen berrikuntza Foru Aldundiak Udalari egiten dion igoeraren berdina izanik, Udalbatza Osoak 2011ko azaroaren 3an hartutako erabakiaren arabera.”

Alkate jaunak esan du azkeneko urtea izango litzatekeela luzatu daitekeena.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu da.

4.- GAZTE LOKALEN ARAUDIA. Hasierako onespina.

Ezagutzera eman da, gazteen aisialdi lokalen araudia, hots:

“ZIOEN AZALPENA

Gazteek aisialdia antolatzeko modu berri bat aurkitu dute: gazteen aisialdirako lokalak (gazteek lagunekin biltzeko erreferentziazko gune propioa topatu dute gazte lokaletan).

Orokorrean gure gizartean zabalduta dago arazo sozialen iturri direnaren pertzepzioa, beraietaz hitz egiten denean arazoetaz hitz egiten delako edo eta mesfidantzaz ikusten direlako. Gainera komunikabideak arazo eta beldur horiek nabarmentzen saiatzen dira fenomenoaren inguruko alarma soziala zabalduz.

Baina lokal hauek badituzte bestelako balio positiboak azaleratu behar direnak, bai gazteentzako eta baita gizartearentzako onuragarriak baitira. Horrela bada, komeni da herriarentzat fenomenoak eduki ditzakeen ondorio positiboak aipatzea.

Horrela, aisialdirako lokalak gizarteratze eta aisialdirako lekuak dira. Bertan gazteak beren banakako eta taldeko nortasuna eraikitzen joaten dira. Indibidualismotik urrundu eta taldeetan integratzeko praktikak garatzeko aukera eskaintzen dute. Taldeko kideen arteko harremanak, adostasunak, arazoak konpontzeko negoziazioak, bizikidetzako onerako hartu beharreko neurriak etab. lantzen dituzte, modu ez informal baten bada ere. Beraz, sozializaziorako espazio hezitzaileak dira eta gizarte ororentzat baliagarriak eta positiboak.

Baita ere herria biziberritzeko balio dezakete, erabiltzen ez diren lokalei erabilera emanaz, hutsik dauden lokalak betez, balizko abandonu egoerak ekidinez, bizilagunetzarekin betez eta ondorioz, kale segurtasuna handituz eta bizi erakargarritasuna handituz.

Beste alderdi positibo bat izan liteke fluxu ekonomikoak indartu ditzaketela eta bizitza soziala aberastu.

Gainera kontuan hartu behar dugu gizarte ohiturek eta egungo egoerak (krisi ekonomikoa, ostalaritzako prezioen igoera, kontsumo ohiturak...) gazteengan eragin dituzten ondorioak: lana aurkitzeko zailtasuna, diru iturri egonkor eta propioa izateko ezintasuna, tabernetan kontsumitzeko dirurik ez izatea, emantzipazio adina atzeratzea... Gainera euskal kulturaren aisia koadriletan edo taldeetan gauzatzeko ohitura kontuan hartzen badugu, gazteek bere gune propioak bilatu izana ulertzen laguntzen du.

Egia da lokal bakoitzak dituen baldintzak eta ematen zaien erabilera oso desberdinak direla; aisialdirako lokalen “marka” generikoaren azpian oso errealitate desberdinak aurkitzen dira, bai erabileran, bai mantenuan, baita bizilagunekin duten erlazioan... Eta baita egia da zenbait kasutan arazoak suertatu direla. Batzuetan lokalek gutxieneko segurtasun eta bizigarritasun baldintzak betetzen ez dituztelako, bizilagunen eskubideekin topo egiten dituzten bestelako erabilera edo jarrera okerrengatik besteetan.

Egoera honen aurrean, lokalek bete beharreko gutxieneko baldintzak zehazte aldera udalak arautegi hau onartzen du. Baina aldi berean eta lokalen eta bizilagunen arteko

bizikidetza behar bezalakoa izan dadin, guztion ahalegina beharrezkoa dela ondorioztatzen da.

1. KAPITULUA EZARPEN EREMUA

1. Artikulua: Xedea

Beasaingo udalerrian dauden gazteen aisialdi lokalen erabilera arautzea du helburu ordenantza honek. Beraz, arautegiaren xedeak dira:

- 1. Beasaingo aisialdi lokalen egoerari dagozkion gutxieneko baldintzak zehaztea - bizigarritasun eta segurtasun arloan-.*
- 2. Eragile desberdinen arteko bizikidetza bermatzea.*

2. Artikulua: Aplikazio eremua

Ordenantzaren lurralde esparrua zoru egoiliarra (residentzialera) mugatzen da. Zoru industrialeko esparruak ekintza ekonomikoetara mugatzen dira.

Arautegi honetan zehazten diren neurriak betetzen dituzten lokalak baimenduko dira bakarrik eta behe oinetan egongo dira.

Erdi sotanoetan dauden lokalek posible izango dute aisialdirako lokalen erabilera izatea, beti ere kalera irteera zuzena dutenean.

Solairuartetan daudenak posible izango dute baimena lortzea beti ere kalera irteera zuzena dutenean.

Sotoetan dauden lokalak ezingo diote aisialdi erabilera eman.

Egun dauden lokaletan eta gerora irekiko direnetan ere aplikatuko da arautegia. Ordenantza hau kontuan hartu beharko da, hortaz, irekiko diren lokal berrietarako zein gaur egun daudenak egokitze edo titularitate aldaketa izango duten horietarako.

3. Artikulua: Erabilera

Aisialdirako lokalak dira:

- Lokal pribatu eta itxiak, non bakarrik alokatzen duten lagun taldea, edo hauek gonbidatutakoak duten sartzeko aukera.*
- Aisialdira bideratutako lokalak.*
- Sozializazio guneak, identitate pertsonal zein soziala eraikitze lekuak. Beraz, lagunekin egoteko, harremanetarako lekuak dira. Hots, elkarte izateko plataformen antza dute.*
- Posible dute telebista ikustea, jolastea eta musika entzutea, ordenadoreekin jolastea edo jolas elektronikotako mota desberdinak erabiltzea. Baita ere eduki ditzakete mahai jolasak, billar-a, futbolina, ping pong-a edo antzekoak.*

Ez dira eta beraz debekatuta dute:

- Edozein ekintza profesional egitea: ez dantza, ez kantu , ez musika (akademia, taldeen emanaldiak...), ez edozein motatako produktuen salerosketa, ez eta ostalaritzako jarduerak egitea (taberna, kafetegi, jatetxe, barra, txozna edo antzekorik)...
- Musika, dantza edo kantu entsegu edo kontzertuak egitea, ez baitira entsegu lokalak.
- Lokalaren erabilera kontutan izanda, ezingo dira motordun ziklomotor ibilgailuak gorde.
- Jarduera lokal barruan bakarrik gauzatuko da; ez dago baimenik jarduera hori kalean edo bide publikoan gauzatzeko. Beraz, ezin da gune publikoa okupatu aulkiekin, mahaiekin edo antzekoekin; ezingo da jendea bildu edo batu lokalaren kanpoko aldean eta beti libre utziko dira sarbideak, ateak, etab.
- Elkarbizitza eta auzoko jendearen atsedena apurtuko duen zaratarik kalean eta beste gune publikoetan (plazak, parkeak...) egitea. Lokalera sartzerakoan edo handik irteterakoan zaratekin kontu handia edukiko da, oihuka, kantuan, txistuka edo zarata aterako duen beste ezertan aritzeke.
- Inguruan bizi diren auzokoentzako gogaikarriak izan litezken jarduerak egitea.
- Higiezinaren segurtasuna arriskuan jartzen duten jarduerak egitea.
- Material piroteknikoa biltzea edo erabiltzea.
- Produktu sukoirik biltzea.
- Lokalean lo egitea eta oheak edukitzea.
- Areto bakoitzerako zehaztutako aforo eta okupazioa gainditzea.
- Ezer jartzea eraikuntzaren fatxadan.
- Lokaletan sortzen den zaborra kalean uztea edozein moduan; zaborra, biltzeko dauden leku eta edukiontzietan (altzairuen kasuan dagokion lekuan eta egunean) utziko da.
- Indarrean dauden ezarritako legieak bete beharko dira (alkohola, tabakoa, eraikuntzen fatxadak...).
- Animaliak lokalean edukitzeari buruz “animalien udal araudiak” honi buruz arautzen duena beteko da (lokaletan ezingo dira animaliak eduki...).
- Aisirako gazte lokalak ez dira bizitokiak. Lagunekin biltzeko eta egoteko baizik.

4. Artikulua: Hartzaileak

Hartzaileak hauek izango dira:

- Adinez helduak diren erabiltzaileak
- Adin txikiko erabiltzaileak eta haien gurasoak
- Lokalen jabeak
- Bizilagunak

Lokal bakoitzeko hartzaile mota bakoitzeko ordezkariak nortzuk diren definituko da. Udalak ordezkari horiekin izango du harremana.

Bizilagunen aldetik udalarekin harremanak izateko administratzailea eta lehendakaria izendatuko dira.

5. Artikulua: Asegurua

Erabiltzaileek aseguru etxe batekin poliza bat kontratatuko dute, erantzukizun zibil orokorra eta maizterrarena, 300.000 euro baino gutxiagoko muga izango ez duena. Asegurudunak aisialdi lokaleko kideak izango dira eta polizak euren erantzukizun zibil eta zuzena, eta instalakuntzan edo hemendik at hirugarrenei eragindako kalteak bere gain hartuko ditu.

6. Artikulua: Kontratua

Lokalek alokairu kontratua izan behar dute, jabeek eta erabiltzaileen ordezkariak edo erabiltzaile guztiak izenpetuta. Adin txikikoen kasuan, hauen ardura dutenek izenpetuko dute, adin txikiko erabiltzaile bakoitzaren tutoreak izenpetuta. Kontratuan lokalaren obra eta egokitzapen lanak nori dagozkion egitea zehaztuta egongo da.

Alokairu kontratua udalean aurkeztuko da. Udalak lokalaren jabea JEZn alta emanda dagoen begiratuko du eta hala ez dagoenean Aldundiari jakinaraziko dio.

2. KAPITULUA

EKIPAMENDUA, GARBITASUNA ETA OSASUN ARLOKO BALDINTZAK

Kapitulu honetan jasoko diren baldintza eta neurri zuzentzaile guztiak arau orokorrak izango dira, eta Ordenantza honen menpean gelditzen diren lokal guztietan bete beharko dira.

7. Artikulua: Lokalak bete beharreko gutxieneko baldintzak

Lokal komertziala izatea ez da abiapuntuko irizpidea izango. Beste mota batetakoak izanik aipatutako neurriak betetzen baditu, aisialdirako lokal bezala erabili ahal izango da.

Lokalen gutxieneko altuera neurria

Lokalen gutxieneko altuera lokalaren azaleraren arabera izango da: 40 m² arteko lokaletan gutxienezko altuera 2,80 m.-koa izango da; 40 eta 80 m² arteko azalerakoetan altuera 3 m.-koa izango da gutxienez eta 80 m² baino gehiagoko azalera dutenetan 3,20 m.-ko gutxieneko altuera izango dute.

Tarte oinak altuera hori betetzen ez badu ezingo da erabili erabiltzaileen aisiarako. Bakarrik biltegi edo gauzak gordetzeko erabili ahal izango da.

Lokal barruko distribuzioa eta horretarako erabiliko diren material-motak

Lokalen barrualdeak gutxienez morteroz zarpiatuta egongo dira, zurituta eta margotuta. Erabili beharreko materialak SS-OD-EKT kodean suteen aurkako babes-baldintzei buruz zehaztutako portaera izango dute.

Sua erraz har dezakeen apainketa materialik ez da erabiliko.

Komunak

Gutxienez komun bat egongo da. Beraz, ur hartunea egongo da.

Elektrizitatea

Instalazio elektrikoa ondo dagoela bi ziurtagiri motekin ziurtatu daiteke: CIBT (Certificado de instalación eléctrica de baja tensión) edo OCA (Certificado del Organismo de Control Autorizado).

Kalefakzioa

Lokalak gasezko instalazioa badu edo bonbonak baditu, ziurtatu beharko da kontratua duela eta dagokion kontrolak pasatzen dituela eta bestela, berogailu-sistema instalazio elektrikoari egokitutakoa izango da. Inolaz ere ez dira onartuko kerosenozko aparaturik.

Aireztapena

Lokalen aireztapen sistemak izango ditu eta naturalak edo mekanikoak izan litezke.

Sukaldeak

Sukaldeak edukitzeko edota kea eragin dezaketen beste etxetresnak badaude, lokalak kea ateratzeko hodi eksklusiboa beharko du.

Aforoa

Irizpide orokor bezala pertsona bat 2 m²-ko izango da (komunak eta instalazio espazioa kontutan hartu gabe).

Gehienezko edukiera hau lokal barruko begi-bistakoa den toki batean jarri beharko da.

Sarbideak

Lokalaren distribuzioaren arabera izango da sarbide kopurua. Irteera ibilbidean 25 m. luzera baino gehiago dagoenean bigarren sarbide bat eskatuko da.

Kalera irteera zuzena izango du.

Emergentziako argiak

Emergentziako argiak egongo dira (irteerako seinalizatzen eta irteera bera non dagoen...).

Extintoreak

Gutxienez bi extintore eskatuko dira: bata 6 Kg-ko hautsa balio anitzekoa (21A-113B) eta CO₂-koa bestea (koadro elektrikoaren ondoan).

Ibilbideko 15 m bakoitzeko beste extintore bat eskatzen da, hautsa balio anitzekoa.

Mantenuko kontratu bat edukitzea eta azken errebisioaren ziurtagiria.

8. Artikulua: udalaren ikuskapena

Udalak instalazioak ikuskatu ahal izango ditu, baldintzak betetzen dituztela ziurtatzeko, edo bestela, neurri zuzentzaileak ezartzeko. Betiere hitzordua erabiltzaileekin adostuko da.

9. Artikulua: Zaratak eragindako eragozpenak saihesteko neurriak:

Soinu eta zarata maila

Goiko etxebizitzako lo gelan goizeko 8etatik gaueko 22ak arte 40 dezibelio baino gehiago ez dira onartuko; eta muga hori 30 dezibeliora jaitsiko da gaueko 22etatik goizeko 8ak arte. Azken kasu honetan, gauean zarata egiteagatik salaketak aurkezten badira udalak eskumena izango du beharrezkoak diren neurriak, baldintza bereziak edo zehapenak ezartzeko.

10. Artikulua: Garbitasuna eta txukuntasuna

Lokal barruak beti ere segurtasun, osasun eta garbitasun baldintza egokietan mantenduko dira.

11. Artikulua: Gune publikoaren erabilera

Lokalaren ate-aurreko eta aldameneko gune publikoan ezingo dira ekintzak egin edo antolatu (futbolean, etab.). Ezingo dira ere altzariak (sofak, mahaiaik...) kanpora atera.

3. KAPITULUA ARAUBIDE JURIDIKOAK

12. Artikulua: lokal berriak irekitzeko eskabidea

Eskaera egiteko aurkeztu behar diren dokumentuak honakoak dira:

- 1.- Lokalaren fitxa.
- 2.- Lokala alokatzen duten adin txikikoen gurasoen baimena.
- 3.- Lokalaren jabearen datuak.
- 4.- Eraikuntzako bizilagunen erkidegoko administradorearen datuak.
- 5.- Alokairu kontratuaren kopia.
- 6.- Erabiltzaileen erantzukizun zibileko aseguru polizaren kopia.
- 7.- Su itzalgailuen mantenu kontratuaren eta azken errebisioaren ziurtagiriaren kopia
- 8.- Argiteri instalazioari dagokion ziurtagiriak: C.I.B.T. edo O.C.A.
- 9.- Lokalak segurtasun neurriak betetzen dituela ziurtatzen duen teknikoaren txostena: lokala non kokatua dagoen zehaztea, azalera, planoak, sarrera eta barruko argazkiak, sukaldea badu legedia betetzen duela, aforoa zehaztea, sarbideak (zenbat behar dituen eta betetzen den), aireztapena, komunak, emergentziako argiak, kalefakzioa, aireztapen sistema, etab.

13. Artikulua: lokal berriak irekitzeko edo egun erabiltzen diren lokalen egoera arautzeko prozedura

- A) Lokal bat ireki aurretik, aurreko artikuluan jasotako dokumentazioa aurkeztu beharko da Udaletxean.
- B) Udal zerbitzu teknikoek ikuskapena egin ahal izango dute 7. artikuluan aurreikusten diren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

C) Baldintzak bete direla egiaztatu beharko dute, beharrezkoa den dokumentazioa edo ziurtagiriak aurkeztuz.

D) Dokumentazioa aurkeztu ondoren Udalak lokalaren ikuskaritza egin dezake.

14. Artikulua: baimenik gabeko lokalak

Izan daitezkeen bestelako zigorrak alde batera utzi gabe, hiru egoera hauetakoren bat gertatzen direnean lokala itxi egingo da eta ohartarazpena izango dute 10 eguneko epean egoera zuzentzeko eta baldintzak betetzen dituztela udalari jakinarazteko:

- Ordenantza honek ezartzen dituen baldintzak lokal batek betetzen ez dituenean.
- Aurretiazko komunikaziorik egiteke edo jakinarazitako baldintzak bete gabe, aisialdiko lokalak irekitzen direnean edota berauen izaera eta jarduera aldatzen denean.
- Debeku-ebazpenak eta jarduera etetekoak edo ixtekoak betetzen ez direnean, neurri zuzentzaileak behin eta berriz betetzen ez direnean edo lokalak berriz ere irekitzen direnean.

4. KAPITULUA DIZIPLINA ARAUBIDEA

15. Artikulua. ARAU-HAUSTEAK

Ordenantza honen aurka egindako arau-hausteak arinak, larriak edo oso larriak izango dira,

15.1.- Arau-hauste ARINAK:

- Altzariak ateratzea edo lokalaren alboan dagoen kalea edo bide publikoa okupatzea, auzokoei eta ordena publikoari enbarazu eginez.
- Zarata neurriak gainditzea.

15.2.- Arau-hauste LARRIAK:

- Musika, dantza eta kantu entseguak edo kontzertuak egitea.
- Motordun edo ziklomotor ibilgailuak gordetzea.
- Lokalean oheak edukitzea edo lo egitea.
- Lokalean animaliak bizitzen edukitzea.
- Baimendutako gehienezko aforoa gainditzea.
- Zarata neurriak gainditzea.
- Lokalak edo instalazioak egoera txarrean egotea eta eskatzen zaizkien osasungarritasun eta higiene neurriak ez betetzea, batik bat komunetan garbitasun falta edo osasungarritasun falta dagoenean, eta honek eragina izatea pertsonen edo ondasunen segurtasunean, edo deserosotasun nabaria sortzea.

15.3.- Arau-hauste OSO LARRIAK:

- Piroteknia materiala biltegiratzea eta erabiltzea.

- Indarrean dauden legediak ez betetzea (adin txikikoek alkohola – tabakoa edo bestelako sustantziak edukitzea eta kontsumitzea, etab.).
- Ekintza profesional edo negozioa egiteko erabiltzea.
- Zarata neurriak gainditzea.
- Aurretiazko komunikaziorik egiteke edo jakinarazitako baldintzak bete gabe, aisialdiko lokalak irekitzea edota berauen izaera eta jarduera aldatzea.
- Udalak eskatutako datuak ezkutatzea edo emateari uko egitea, edo udalaren eginkizunak betetzeko udal ordezkariari behin eta berriz sartzen ez uztea, edo udalaren ikuskapen-lanari, beste edozein modutan –aktiboki zein pasiboki- eragozpenak ipintzea, galaraztea edo trabak jartzea.
- Debeku-ebazpenak eta jarduera etetekoak edo ixtekoak ez betetzea, neurri zuzentzaileak behin eta berriz ez betetzea edo lokalak berriz ere irekitzea, lokalok ixteko zehapen irmoa, administrazio-bidekoa, burutzepidean badago.
- Ordenantza honetan ezarritako funtzionamendu arauak eta segurtasun neurriak ez betetzea.

Zarata neurriak gainditzeko direnean Udalak baloratuko du kasu bakoitzean izan duen eragina eta horren arabera erabakiko da arau-hauste arina, larria edo oso larria den.

16. Artikulua. Zehapenak

1. Arau-hauste ARINAK:

	Lehenengo arau-hauste arina:	Bigarren arau-hauste arina:
<i>Erabiltzaileentzako (edota adin txikikoen gurasoentzako):</i>	<i>Ohartarazpena</i>	<i>Aste baterako lokala itxiko da</i>
<i>Lokalaren jabearentzako:</i>	<i>Ohartarazpena</i>	<i>Ohartarazpena</i>

Hirugarren arau hauste arina arau hauste larritzat joko da.

2. Arau-hauste LARRIAK:

	Lehenengo arau-hauste larria:	Bigarren arau-hauste larria:
<i>Erabiltzaileentzako (edota adin txikikoen gurasoentzako):</i>	<i>Hilabete baterako lokala itxiko da</i>	<i>Hilabete baterako lokala itxiko da</i>
<i>Lokalaren jabearentzako (beti ere alokairu kontratuaren arabera, berak egin behar duenean lokalaren egokitzapena):</i>	<i>100 €-ko isuna</i>	<i>100 €-ko isuna</i>

Hirugarren arau hauste larria arau hauste oso larritzat joko da.

3. Arau-hauste OSO LARRIAK:

	Lehenengo arau-hauste oso larria:	Bigarren arau-hauste oso larria:
<i>Erabiltzaileentzako (edota adin txikikoen gurasoentzako):</i>	<i>Sei hilabeterako lokala itxiko da</i>	<i>Lokalaren itxiera</i>
<i>Lokalaren jabearentzako (beti ere alokairu kontratuaren arabera, berak egin behar duenean lokalaren egokitzapena):</i>	<i>100 €-ko isuna</i>	<i>100 €-ko isuna eta lokal hori erabilpen horretarako ez gaitzea urte baterako</i>

Arau hauste arinen preskripzio epea 3 hilabetekoa izango da. Arau hauste larrien preskripzio epea 6 hilabetekoa izango da. Arau hauste oso larrien preskripzio epea 12 hilabetekoa izango da. Aldiz, zehapenen preskripzio epea 12 hilabetekoa izango da.

5. KAPITULUA XEDAPENAK

Iragankor xedapenak:

*Arautegia indarrean sartzen denetik, aisialdirako lokalek neurri horiek betetzeko **6 hilabeteko egokitzapen-epea** izango dute.*

Azken xedapena:

Ordenantza hau indarrean sartuko da, testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik 15 egunetara.”

Alkate jaunak (BILDU): “esan beharra dago askotan atera den gaia dela hau. Erabiltzaile, bizilagun eta jabeen arteko talkak askotan izan direla eta horri soluzio bat eman nahian hasitako prozesua. Helburuak izan dira erabiltzaile eta bizilagunen arteko bizikidetza eta segurtasuna bermatzea eta eskatu nahi diren betebeharrak ere betetzeko modukoak izatea alde guztietatik. Prozesu luzea izan da, baina hitz egiteko aukera eman zaie jabeei, bizilagunei eta gazteei. Beraiek proposaturiko gauzak kontuan hartu dira eta beraiekin adostutako araudia da. Nahiz eta askotan lan neketsua izan, eskerrak eman nahi diegu bertan parte hartu dutenei. Uste dugu egindako araudia egokia dela. Denbora pasatu da baina denen iritzia kontuan hartu da eta merezi izan du egindako prozesua.”

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “vamos a votar a favor de esta ordenanza. Es verdad que se ha estado mucho tiempo diciendo al equipo de gobierno que había que regular esta actividad o estos espacios de ocio en Beasain. Es cierto que nosotros incluso hicimos alguna crítica porque había falta de funcionamiento y coordinación, pero nos parece bien. Hay algunas

cosas que nos gustan más y otras menos. Hay partes que son ilusión de voluntades, pero nos preocupan dos cosas:

- La capacidad de hacerla cumplir. Lo que se escribe está muy bien, pero luego hace falta capacidad para hacerla cumplir.
- La voluntad política de hacerla cumplir. Estaremos pendientes de que se requiera el cumplimiento de las condiciones.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “aurka bozkatuko dugu arrazoi hauengatik:

Sarreratik hasita iruditzen zaigu okerreko ikuspegia dagoela, ez zaigulako iruditzen arazo sozialen iturria izatea. Egia da arazoak daudela, baina ez arazo soziala. Gainera jartzen du komunikabideek arazo sozial horiek nabarmentzen saiatzen direla. Horrekin ez gatoz bat. Ez zaigu iruditzen gazteen lokalak, gazte lokal izateagatik arazo direla baizik eta gazteen lokal horietan dauden gazteak sortzen dituzten arazoak direla. Guk bere garaian eskatu genuen, diagnosi bat egitea eta jakitea ordenantza honek zein lokal itxi zitzakeen. Orduan aipatzen zen lokalak gutxieneko azalera beharko zutela, baina orain ez da hori azaltzen. Bainua izan beharko luketela eta badaude lokalak 22-23 metro karratukoak. Hor komuna jarri behar bada, nekez eramango dute hori aurrera. Alfonsok esan duen bezala, gauza bat da idaztea eta zein gutxiengoak behar dituen eta bestea da betearaztea. Iruditzen zaigu planteatzen den ordenantza ez dela errealia. Adibidez, edatea eta erretzea debekatu egiten da lokaletan. Idaztea erraza da, baina nork kontrolatu behar du hori? eta zein dira hartuko diren neurriak?. Esten da hotsak ere kontrolatu behar direla eta ezin direla gertuen dagoen etxean, gaueko 10,00etatik goizeko 6,00etara 30 dezibeliotik gora hots sortu eta egunean 40 dezibeliotik gora. Hala ere, neurriak ez badira hartzen alperrik ari garela iruditzen zaigu guri. Tabernei sonografoak jartzea behartzen zaizkie...Paperean jarrita, hor geratuko da, baina neurriak hartzen ez badira, egiaztatzeko hori horrela den ala ez, aurkitu gara bizilagunen kexekin eta kexa horien aurrean gazteak esanez, beraiek ez direla izan. Betikoa. Neurriak ez badira hartzen edo bitartekoak ez badira jartzen, iruditzen zaigu ordenantza hau irrealia dela. Hori dela eta, beste arrazoi batzuk tarten direla medio, ezezkoa bozkatuko dugu. “

Aitor Larburu jaunak (BILDU): “Prozesua nik bizi dut hasieratik bukaera arte eta lehendabizi eskertu nahi nituzke, lokaletako jabeek, bizilagunek eta gazteek izan duten jarrera momentu oro. Jarrera oso konstruktiboa izan da eta benetan zoriontzekoa.

Orain sartuko naiz, talde politikoen kezkak erantzutera. Erabat ados nago Alfonsok esaten duenarekin. Prozesu honetan udalaren mailan ea sail gehienetako teknikariek lan talde bat sortu genuen eta bertan markatutako irizpidea izan zen ordenantza bat sortzearena betetzeko modukoa. Ez genuen filosofiatan galdu nahi. Hori horrela izan balitz, orain urte bete ordenantza hemen izango genukeen. Teknikariek lanean jarri ditugu eta dokumentu hau sortu da. Martxan jarri zen prozesuan, berdin. Hainbat gauzetaz hitz egin da eta

bai erabiltzaileek eta baita jabeek ematen duten erantzuna ere tamainakoa izan da. Alfonsorekin ados nago, ordenantza bat onartzen bada betearazteko dela. Hori da, hain zuzen ere, gure intentzioa. Kezkak daudela politikoki gogoia izan digun betetzeko edo ez?, beno bakoitzak jakingo du zergati esaten duen hori. Guk ordenantza bat aurkezten badugu eta onartzen bada, betearazteko izango da. Alde horretatik esateko ezer gutxi daukagu. Zirriborroa eginda genuenean, gazteriako batzordean aurkeztu zen eta epe bat utzi zen ekarpenak egiteko. Ondoren berriro ere gazteri batzordea bildu zen eta tarte eta baita ere denbora izan dugu, lasaitasunez hartu dugulako eta hasieratik esan genuelako, udal talde guztien adostasuna nahi genuela, ikusten genuelako gai sentsiblea zela. Behin baino gehiagotan gai honek kezkak sortu ditu eta pena da talde guztien adostasuna lortu ez izana. Pena da baita ere EAJkoek orain esan dituenak, batzordean ekarpen modura ez aurkeztea. Pena da batzordeen esaten zenuten gauza bakarra izatea: *“esto no hay por donde cogerlo.”*. Pena ematen dit zuen jarrera hori izatea eta batzordean ere horrela esan nuen. Zer gertatzen den argi eta garbi ikusten da. Grazia egiten dit esaten duzunean, ordenantza bete ezina dela zaratak, neurria etab. direla eta. Zuek gobernuan egon zareten bitartean tabernariei betearazi egin diezuen, galdetuko nuke nik. Guk betearaziko dugu, noski baietz. Berriro diot, hau da adibide bat legealdi honetan zuen jarrera oztopatzailea adierazten duena. Batzordean ekarpenik ez egin, hona etorri eta aurka bozkatu.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Bakarren bat gezurretan ari da. Guk gure irizpidea dugu puntuz puntu. Nik aipatu ditudanak baino gehiago dira. Niri esan zait batzordeetan puntu guztiak aipatu direla. Erantzuna eman aldera esan, tabernei sonografoa jarri egin zitzaiela. Ordenantzan logikoa izango litzatekeena da komuna jartzea behartzen zaien bezala, sonografoa ere jartzea. Bestela, nola neurtu behar da?. Ea da ordenantzaren aurka, aurka egoteagatik. Komunena jartzen da, baina sonografoarena ez eta horrela ezin da kontrolatu. Tabernetan ez dugu kontrolatzen eta nola kontrolatuko dugu lokaletan?”

Alkatea jaunak (BILDU): “jartzen duena da adin txikikoek ezin dutela erre eta edan, baina debeku hori ez da gurea, baizik eta hori legeak esaten du.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “bai baina gu ordenantza bat egiten ari bagara eta lege bat badago, ordenantzak zertarako balio du?. Ordenantza egiten ari bagara eta gauza horiek neurtzeko ez badugu bitartekorik jartzen, zertarako balio du ordenantzak?. Legeak esaten duelako?, bai baina ezin izango dugu betearazi. Orduan ez jarri, denok dakigu nola dabiltzan 16-17 urteko gazteek lokaletan. Horregatik esaten dugu ez dela erreala. Ez beste ezegatik.”

Alkatea jaunak (BILDU): “zer egin behar da orduan, lokal guztiak itxi?”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “beste herri batzuetan ordenantzak funtzionatzen dute eta askoz ordenantza sinplegoak dira.”

Alkatea jaunak (BILDU): “entzun nahi nituzke, Iñigok egindako proposamenak zeintzuk izan diren.”

Iñigo Arrese jaunak (EAJ): “nik dakidan arte hau hiri batzordeetan tratatu da. Ni bietan egon naiz. Zirriborroa aurkeztu zitzaigun. Epe bat egon zen (hilabete hilabete eta erdi) zirriborroa lantzeko. Hurrengo batzordean guk esan genuen gehiegizkoa iruditzen zitzaigula, zaila izango zelako betearazteko. Tabakoena aipatu zenean, adibide bezala esaten genuen, gehiegizkoa zela kontutan izanda Eusko Jaurlaritzaren aurre-proiektu legean esaten delako debekatu egin behar zuela elkarteetan erretzea. Esan genuen lau ildotan lana egin behar zela, alde batetik uste dugu Udalak tartekari lana egin behar duela, bizilagun eta lokalen arten elkarbizitza bermatzeko. Segurtasunaren aldetik, elektrizidadea, aseguru eta sua kontrolatu egin behar zirela esaten genuen. Gure ustetan horrekin nahiko izango zen ordenantza egiteko. Guk esaten genuena da, ordenatza sinplegoa egitea betegarriagoa izateko. Ez dakit hori ekarpen hartzen duzuen edo ez, baina hori da guk esan genuena. Ez gaude oztopatzeko. Haserretu egin ginen, zuek esaten zenuelako proposatzen zena erabili egin behar genuela eta nik esan nitzun hori ez zela horrela.”

Aitor Larburu jaunak (BILDU): “eztabaida bukatzeko. Ordenantzan esaten du indarrean dauden legeak bete egin beharko direla eta debekatuta daudela, alkohola, tabakoa etab...”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 9 (BILDU, PSE-EE/PSOE, ARALAR)

Aurkakoak: 8 (EAJ, H1, PP)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, aldeko botoen kopurua aurkakoa baino handiagoa denez, gehiengo absoluturekin ondorengo proposamena onartu da:

Lehenik. Gazteen aisialdi lokalen araudiari hasierako onespena ematea.

Bigarren. 30 laneguneko epean jendaurrean jartzea, GAOean dagokion iragarkia argitaratuz eta adieraziz, epe horretan ez bada inolako alegaziorik aurkezten, behin betirako onartua geratuko dela.

5.- BERDINTASUN PLANAREN ONESPENA.

Alkate jaunak (BILDU): “emakume eta gizonezkoen arteko berdintasun lehen plana onartzeko proposamena egiten da. Berdintasun batzordetik dator eta eragile ezberdinek parte hartu dute. Horien artean, ASMUBE, berdintasun foroa, alderdi politikoak eta herritarrek ere parte hartu dute. Guretzat lehentasuna duen gaia da. Plana Emakundek onarturiko irizpideetan oinarrituta dago eta irizpide horiek jarraitzen dira. Plan eginda dago eta

martxan jartzea geratzen da. Plan mardula da eta badago zeregina aurrera eramateko eta berdintasun aurrean borroka egiteko.”

Josi Insausti jaunak (H1): “gai honen aurrean eztabaidetan ez dut sartu nahi, baina bai bi gauza edo hiru planteatu. Egia da planaren arabera hainbat gauza egin behar direla, baina plan baten sendotasuna neurtzeko prozedurak zer esan handia du. Batzordean gai hau planteatu zenean, hainbat kezka sortu zitzaigun, prozeduren aldetik. Hitz egin genuen eta ematen zuen gauzak martxan jarri zirela. Ekarpenak ere egin ziren baina ez ditugu jasota ikusi. Ondo idatzita dago, baina hutsune batzuk daude eta horregatik abstenitu egingo gara.”

Proposamenarekiko gehiago esateko ez dagoenez, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 10 (BILDU, PSE-EE/PSOE, PP, ARALAR)

Aurkako botoak: 7 (EAJ, H1)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, aldeko botoen kopurua aurkakoa baino handiagoa denez, gehiengo absoluturekin berdintasun plana onartu da.

6.- EGINDAKO ERREPAROEN EBAZPENAK, ESPEDIENTE HAUEI BURUZ: Kooperazio proiekturako emandako dirulaguntzaren itzulketaketa.

Alkate jaunak, 2015eko otsailaren 9an Kontuhartzaileak emandako erreparo txostenaren berri eman du, hau da:

“GAIA.- Kooperazio proiekturako emandako dirulaguntzaren itzulketarako espedientea.

AURREKARIAK

1.- 2012ko martxoaren 15ean egindako bileran, Udalbatzak Garatze Bidean dauden Herrialdeekin Lankidetzak proiektuak diruz laguntzeko oinarriak onartu zituen.

2.- 2012ko irailaren 28ko data duen Alkatearen ebazpenaren bidez, Haurralde Fundazioari 20.000,00 euroko dirulaguntza eman zitzaion “Gazteriaren ahalduntzea, garapena eta bazterkeriaren prebentzioa, genero ikuspuntua kontutan izanda eta formakuntza profesionalaren bitartez Nhamatsanen. Mozambique.Afrika” proiektua gauzatzeko.

3.- 2012ko abenduaren 31n Udalak, Haurralde Fundazioari emandako dirulaguntzaren %70a ordaindu zuen, hau da, 14.000,00 euro.

4.- Haurralde Fundazioak, 2014ko urtarrilaren 31ko datarekin, dirulaguntzaren helburua betetzearen egiaztagiria aurkeztu zituen, eta bertan ez zen ageri emandako dirulaguntzaren %100^a transferitu izanaren egiaztagiria, bidalitako dirua zehazki

Beasaingoa zenaren zehaztapenarekin, oinarri arautzaileen 11.1 artikulua xedatzen duen moduan.

5.- Aurkeztutako dokumentazioa zuzentzeko emandako epea igaro ondoren, Haurralde Fundazioak egindako transferentzia egiaztatzeko ezina aitortu du, oinarrietan eskatutako moduan..

6.- Gizarte Langile-Gizarte Dinamizatzaileak 2014ko azaroaren 14an, aipatutako Fundazioari emandako dirulaguntzaren itzulketaren beharra azalduz txostena egin du, emandako dirulaguntzaren egiaztapenerako oinarriek eskatutako baldintza ez betetzeagatik.

Hala ere, Gizarte Ongizate Batzordeak, 2014ko azaroaren 20an, ondoren adierazten denaren arabera Alkateari zuzendutako ebazpen proposamena egitea erabaki du:

- Haurralde Fundazioari, onartutako (20.000 €) dirulaguntzaren %3a gehi emandako diru kopuruaren berandutza interesei dagokiona (emandako 14.000 €en %5a dirulaguntza ordaindu zenetik azken justifikazioa aurkeztu arte), soilik itzultzeko eskatzea. Hau da, 1.758,36 euro.

- Dirulaguntzaren bigarren ordainketari dagokion kopurua (6.000,00 €) ordaintzea, aurreko atalean adierazitako itzulketa eta berandutza interesei dagokien kopurua jaso ondoren.

Hau guztia kontutan izanik, txosten hau igortzen da, ondorengoaren berri emateko:

1.- Txosten hau sinatzen duenak bat egiten duela Gizarte Langile-Gizarte Dinamizatzaileak 2014ko azaroaren 14an egindakoarekin.

2.- Jakinarazteko, kontutan izanik 21/2003 Foru Arauaren 70.5 artikulua xedatutakoa, Udalbatzari dagokio eztabaida ebatzea, bere eskumeneko gastuen onespenera buruzkoa baita, hain zuzen ere, oinarrien 13. Artikuluak ondorengoa dioenez: “ Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharretakoren bat ez betetzeak erabakia berrikustea ekarriko du eta, hala behar izanez gero, emandako dirulaguntza deuseztatzea, gutxitzea edo itzularaztea” eta beraz, oinarrien aldaketa, onartu zituen organoaren eskumena da.

Ondorioz:

1.- Espedientearen izapidetzea eten beharko da, Udalbatzak erreparoa ebatzen duen arte.

2.- Horren inguruan adierazten da, Hazienda Lokalak arautzen dituen Legearen Testu Bateratuaren 218.3 artikulua xedatzen duena kontutan izanik, Toki Erakundearen Lehendakariak eta Udalbatzak egindako eragozpenen aurkako ebazpen edo akordioak ematen badituzte, horiek Kontuhartzailetzako organoak urtero bidali beharko ditu Kontuen Epaitegira.”

2014ko azaroaren 20an gizarte-ongizate batzordeak egindako proposamena bozkatu da eta aho batez onartu da.

7.- ADIERAZPEN INSTITUZIONALA. Emakumeen nazioarteko egunaren inguruan.

Alkate jaunak (BILDU) adierazpena irakurri du:

“975ean NBEak martxoaren 8a emakumeen nazioarteko egun izendatu zuen, eta egun hori baliatuz aldarrikatzen dugu emakume eta gizonen berdintasuna giza eskubide ez ezik funtsezko beharrezko faktorea dela Euskal Herriaren giza garapenerako, garapen sozialerako eta ekonomikoarentzako.

Abagune ezin hobe dugu munduko emakume guztiei gorazarre egiteko; batzuetan bizitzak arriskuan jarritik ere haien eskubideak lortu eta defendatzeko borrokan aritu diren eta dabilzan emakume guztiei. Egokiera ona da, baita ere, berdintasuna zer den aitortzeko: kultura eta filosofia bat, gizateria osoarentzat beharrezkoak diren balioetan oinarritzen dena. Berdintasunak pertsona guztien autonomia garatzen laguntzen du, elkartasunean oinarritutako balioak indartzen ditu, parekoen arteko hartu-emanak sustatzen ditu, eta demokrazia hobetzen laguntzen du. Berdintasuna giza eskubide bat da, pertsona orori atxikitako eskubidea alegia, ezin bortxatuzko eskubidea eta besterenezina. Gizarte bezala, bizitzaren esparru orotan bermatu behar dugu hura betetzea.

Aurten hamar urte bete dira Eusko Legebiltzarrean Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea onartu zenetik. Lege horretatik abiatuta, berdintasunerantz aurreratu den guztia goraipatzen dugu. Baina, aldi berean, egiteko asko geratzen zaigula aitortu behar dugu eta aitortu nahi dugu.

Hausnarketa eta balantzea egiteko abagunea ere bada, emakumeok orain arte lortutako askatasun eta eskubideak galtzen ari garelako. Krisiaren aitzakian, lan-baldintzak okertzen ari dira orokorrean eta are gehiago emakumeentzat. Bestalde, oraindik ere etxeko lanak eta zaintza-lanak emakumeei egokitzen jarraitzen dute hein handi batean.

Gizarte publikoari dei egiteko eguna ere badugu, aldarrikatzeko eguna, zeren eta aurrerabideak lortu baditugu ere, oraindik luzea da emakumeen eta gizonen artean berdintasuna lortzeko bidea, eta hori emakumeen borrokaren eskutik eta borroka feministaren eskutik etorriko da. Berdintasun benetakoa lortzea erronka da oraindik ere. Lan-merkatuan emakumeek gizonen baino % 36,2 gutxiago kobratzen dute batez besteko lan berdinegatik, eta lanaldi partzialetan dauden langileen % 80,9 emakumeak dira.

Horretarako, eraldaketa sozialerako baloreen aldaketa bat behar beharrezkoa da lehenbailehen, emakumeen lan-bazterkeria betirako amaitzeko, lan-bazterkeria horrek dakarren arraila sozial eta ekonomikoa desagertzeko, ekoizpen-lanaren eta ugalketa-lanaren banaketa ezberdinari bukaera emateko, eta emakumeen aurkako indarkeria matxista amaitzeko. Hori da emakumeen eta gizonen ezberdintasunaren ondorio gogor eta ankerrena. Badakigu zeregin zaila dugula. Horregatik eskatzen diogu gizarte osatzen dugun pertsona bakoitzari, eguneroko bizitzan bere erabakiekin eta bere jokabideekin berdintasuna eraikitzeko. Guztion zeregina da hainbeste nahi eta behar dugun berdintasuna eraikitzea.

Baina, horrez gain, batez ere konpromisoa hartzeko eguna da. Horregatik, gure ustea berretsi nahi dugu: irmoki jarraitu behar dugu ekintzak bultzatzen, emakumeen eta gizonen artean berdintasun benetakoa eta eraginkorra lortzeko behar diren beste ekintza bultzatzen, horrela lagunduko baitugu gizarte solidario eta justuago bat eraikitzen, bizitza ekonomiaren erdigunean jarriko duena, eta ez alderantziz.

Guztionez eskubide berberak lortzeko bidean aurrera egiteko, beharrezkoa da elkarlana, etenik gabe elkarrekin lan egitea gizarteak, emakumeek eta gizonak, gizarte zibilak, eragile sozialek, sindikatuak, alderdi politikoak eta botere publikoak. Horregatik nahi genuke adierazpen hau planteamendu ideologikoetatik harago joatea, inguruabar sozial eta ekonomikoetatik harago, baita une jakin batetik harago ere, hots, martxotik harago. Izan bedi borroka irmoa eta iraunkorra, izan bedi gure ekintzen ardatza urteko egun guztietan. Justizia sozialak hala eskatzen duelako, eta nahitaezkoa delako gizarte osoarentzat.

Berdintasunak gizarte bezala aurrera joaten laguntzen digu, pertsonen autonomia eta duintasuna hobetzen laguntzen du, errespetua sustatzen du, eta demokrazian zein justizian sakonarazten digu. Horregatik guztiagatik, 2015eko martxoak 8 dituen honetan, emakumearen nazioarteko eguna izanda, emakume eta gizonen benetako berdintasun eraginkorra lortzeko urrats sendoak ematen jarraitzeko borondatea berresten dugu.

Beasaingo Udalbatza honek emakumeen elkarte mugimenduak, emakumeen eskubideen aldeko borroka zein borroka feminista indartzeko eta parekidetasunaren eta berdintasunaren aldeko mugimendu oro indartzeko konpromisoa adierazten dute, eta herritarrei dei egiten diete emakumeen nazioarteko egunaren inguruan antolatuta dauden ekitaldietan parte har dezaten.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu da, emakumeen nazioarteko egunaren inguruko adierazpen instituzionala.

8.- MOZIOAK:

a.- BILDU udal taldeak aurkezten duen mozioa, Hassanna Aaliari babes politikoa ukatzeari buruz.

Alkate jaunak (BILDU) adierazpena irakurri du:

“HASSANNA AALIA LAGUNTZAKO ADIERAZPENA

Mozio hau izenpetzen duten talde politikoak, indarrean dagoen legeriaren babesean, bere eztabaidarako eta onespenerako hurrengo PROPOSAMENA aurkezten diote Erakundearen Osoko Bilkurari, Hassanna Aaliari babes politikoa ukatzearen inguruan (eta Estatu espainiarra uzteko 15 eguneko epeari buruz).

Hassanna Aalia 1988an El Aaiunen jaio zen, Mendebaldeko Saharan.

2010ean Gdeim Izik kanpamentuko protesta baketsuan parte hartzen du aktiboki. Gertaera honengatik epaitua izan zen eta lau hilabeteko espetxe zigorra ezarri zioten.

2011ko urrian ikasketa-beka bati esker Bilbora bidaiatzen du. El Aaiunera itzultzeko bi hilabete falta zirenean bere izena agertzen da Gdeim Izikeko gertaerengatik Auzitegi Militar batek epaituko dituen pertsonen zerrendan; hark Bilbon geratzea erabakitzen du eta gobernu espainiarrari babes politikoa eskatzea, bere herrira itzuliz gero autoritate marokoarrek kartzelatuko luketelako.

2013ko otsailaren 17an Rabateko Auzitegi Militarrek 25 zibil sahararren kontra sententzia ematen du; Hassanna Aaliari biziarteko kartzela-zigorra zigorra ezartzen dio (errebeladian aitortuta).

Hainbat nazioarteko legelari prestigiotsuek epaiketa erabat deuseztat jotzen dute: ez zegoen ez lekuko fidagarririk ez probarik, horrela Nazioarteko Zuzenbideari (Genevako Hitzarmena) bizkarra emanez.

Harrezkero estatu espainiarrean zehar dabil, kartzelatutako bere lagunek sufritzen duten babesgabetasun egoera jakinarazten eta erregimen marokoarrak egunero Herri Sahararra menderatze aldera eragiten duen bidegabekeria salatzen.

2015eko urtarrilaren 19an Hassannari bere babes-eskaerari uko egiten zaiola jakinarazten diote eta lurralde espainiarra uzteko 15 eguneko epea ematen diotela.

Guzti hau dela eta, egoeraren larritasunaren aurrean, Bilkura honek honako ERABAKIAK hartu ditu:

1. Hassanna Aaliari sostengua eta elkartasuna adieraztea.
2. Espainian dagokion autoritateari eta Barne Ministroari gai honetan parte hartzea eta Hassanna Aliaren asilo eskaera berriz aztertzea eskatzea.
3. Marokoko Gobernua Mendebaldeko Saharan eragiten ari den Giza Eskubideen bortxaketa areagotzen ari dela eta gure ardura azaltzea. Errepresio egoera honi amaiera ematea eta Saharako preso politiko guztiak aske uztea.
4. Mendebaldeko Saharan NBEk adostutako Autodeterminazio Erreferenduma ospatzea eskatzea; hau baita konfliktu luze hau lurraldearentzat modu iraunkor, baketsu eta egonkorrean konpontzeko era bakarra.
5. Akordio hauek ondoko erakundeetara bidaltzea:
 - a. **ESPAINIAKO ERREGE-ETXERA**
Palacio de la Zarzuela. Carretera del Pardo s/n. 28071 Madrid
 - b. **ESPAINIAKO GOBERNU BURUARI**
La Moncloa. Avda. Puerta de Hierro, s/n. 28071 Madrid
 - c. **KANPO HARREMANETARAKO ESPAINIAR MINISTROARI**
Plaza de la Provincia, 1. 28012 Madrid
 - d. **ESPAINIAKO BARNE MINISTROARI**

Paseo de la Castellana, 5. 28046 – Madrid

e. *NAZIO BATUEN AURREKO ESPAINIAKO MISIO IRAUNKORRARI*

245 East 47th Street, 36th Floor. New York, NY 10017

f. *ACNURREN ORDEZKARITZA ESPAINIAN:*

Avda. General Perón 32-2º izda. 28020 Madrid

g. *EUROPAKO PARLAMENTUKO PRESIDENTEARI.*

Martin Schulz. Rue Wiertz 60. B-1047 Bruselas

h. *EUROPAR KONTSEILUKO PRESIDENTEARI.*

Donald Tusk. Rue de la Loi 175. B-1048 Bruselas

i. *MAROKOK ESPAINIAN DUEN ENBAXADARA.*

c/ Serrano, 179. 28002 Madrid.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek mozioarekiko iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros jaunak (PP): “Este tema es muy delicado. No es tema de debate en este Ayuntamiento. A la justicia hay que dejarla trabajar. No podemos obstaculizar las decisiones legales. Hay que respetar la devolución de gente con todas sus consecuencias.”

Beste guztiek, proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 16 (BILDU, EAJ, PSE-EE/PSOE, H1, ARALAR)

Aurkako botoak: 1 (PP)

Abstentzioak: 0

Aldeko botoen kopurua, aurkakoa baino txikiagoa denez, gehiengo absolutuarekin onartu da mozioa.

b.- BILDU udal taldeak aurkeztzen duen mozioa, torturaren aurkakoa eta giza eskubide guztien aldekoa.

Akate jaunak (BILDU) mozioa irakurri du:

“Otsailaren 13an 34 urte bete ziren Joxe Arregi hil zenetik Polizia Nazionalaren eskutan 9 egun eman ondoren. Harrez geroztik tortura urtetik urtera salatu dugu, kalean eta erakundeetan. Zentzu horretan, Euskal Herrian milaka eta milaka herritarrek salatu dute txarrak jasan izana Estatuko polizia indarren eskutik.

Gainera, aurten jakin dugu Giza Eskubideen Europako Auzitegiak Espainiako Erresumaren aurkako kondena-epai berri bat eman duela euskal herritar batek salatutako torturak ez ikertzeagatik. Epai honekin, Giza Eskubideen Auzitegiak

dagoeneko bost kondena-epai eman ditu Espainiako Estatuaren aurka, euskal herritarrek aurkeztutako tortura-salaketak ez ikertzeagatik.

Horregatik guztiagatik, Euskal Herrian oso testuinguru garrantzitsu batean gaudela aintzat hartuta, non oraina eta etorkizuna eraiki nahi dugun giza eskubideen errespetuan oinarrituta, Beasaingo Udalak erabaki du, mozio honen bitartez:

- 1. Komisarietan tratu txarrak ahalbidetzen dituzten egun indarrean dagoen legedia behingoz eta behin betiko indargabetzeko eskatzea, Lege Antiterrorista indargabetu eta atxilotuen inkomunikazioa bertan behera utziaz.*
- 2. Funtsezkoa den eskubide honen urraketa pairatu duten pertsonen sufrimendua aitortu eta erreparatzea.*
- 3. Auzitegi Nazionalari eskatzen dio tortura eta inkomunikazioa pairatu dituzten atxilotuen kontrako prozesu judizial guztiak berrikusi eta bertan behera utz ditzala.*
- 4. Akordio honen berri ematea.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren bildutakoek mozioarekiko iritzia hauek azaldu dituzte:

Julio Herreros jaunak (PP): “hay que ser demócrata para presentar esta moción. No hay que mirar sólo a una parte, también existen las otras víctimas, las que han sufrido tortura psicológica en la intimidad con vejaciones, amenazas, etc. Y ¡que decir de los derechos humanos que no han sido respetados en todos estos años de terrorismo!. A estas víctimas son las que deberíais de apoyar, cosa que no hacéis. Habéis cogido el camino más fácil, el antidemocrático. “

Bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 14 (BILDU, EAJ, H1, ARALAR)

Aurkako botoak: 3 (PSE-EE/PSOE, PP)

Abstentzioak: 0

Aldeko botoen kopurua aurkakoa baino handiagoa denez, gehiengo absolutuarekin onartu da mozioa.

c.- Banderari buruzko mozioa

Alkate jaunak (BILDU) ondorengo mozioa irakurri du:

“NORTASUNA ETA KOLOREAK, GEUREAK

2011an Espainiako Gobernuaren Ordezkaritzatik jasotako errekerimendu baten haritik helegiteen bitartez bide administratiboa agortu ostean, 2013ko ekainaren 21ean Euskadiko Auzitegi Nagusiko Auzi Aretoak sententzia irmo bitartez Udal eraikinean Espainiako bandera jarri beharra ebatzi zuen. 2015eko otsailaren 2an berriz, bandera hori jartzeko agindua jaso zuen Beasaingo udalak.

Egoera honen aurrean, Beasaingo Udalbatzari ondorengo puntuak onartzea proposatzen zaio:

1.- Onartezintzat hartzen ditugu Espainiar Gobernutik datozkigun inposizioak, herritarren sentimenduetatik urrun daudelako eta gehiengoarekin kontatu gabe hartzen direlako.

2.- Udaletik, Euskal Herriaren aitortza eta burujabetza lortzeko tan egin, eta euskal herritarren nortasun eta identitate ikurrak sustatzeko konpromisoa hartzen dugu, Nazio gisa agertzen gaituzten ikurrak babestu eta zabaltzeko neurri zehatzak abian jarriaz. Zentzu honetan, Udal honek, herriko jaietan eta Aberri egunean antolaturiko ekitaldien testuinguruan, herritarrei Ikurrina eta euskal Ikurrak etxeetako balkoietan zintzilikatzeko deia egiten die.

3.- inposizio hau desagertu artean Loinazko San Martín plazan inposizioa hau salatzen plaka bat jartzea onartzen dugu.

4.- Beasaingo kaleetan Euskal sinboloen presentzia indartzeko ekimenak burutuko ditugu, horietan lehena, Loinazko San Martín plaza inguruan Ikurrina ezartzeko masta jartzea erabakitzen dugu.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros jaunak (PP): “El tema de las banderas es muy sencillo de arreglar cumpliendo con la Ley. La Comunidad de Euskadi está dentro del estado español, como tantas otras, es decir, esto es, España legalmente. Entonces, ¿que bandera se debe de colocar en los Ayuntamientos?, la española, guste o no guste. Luego cada Comunidad coloca también la suya, eso es legal y me parece bien.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Guretzat beti izan da inposaketa bat espainiar bandera jartzea, ez garelako espainolak kontsideratzen. Hala ere, mozio honen aurrean, historia pixka bat egin nahi nuke eta horretarako komunikabideak, hain zuzen ere, GARAK hiru epe ezberdinetan ateratako hainbat artikuluetan esaldiak ekarri nahi nituzke gogora. Adibidez, hitzez hitz irakurriko dut, “Ibon Arbulu de Batasuna explicó que exigieron al PNV que haga oídos sordos a las peticiones de los nacionalistas españoles, y no coloque la bandera española en el Ayuntamiento, sino únicamente la Ikurriña, puesto que la bandera española supone por una parte la negación de la existencia de Euskal Herria”. Beste batean: “la izquierda abertzale criticó hoy que la bandera española haya sido colocada en la Casa de Juntas. Además reprochó al PNV que acate y coloque esta enseña que a su juicio supone un ataque claro al derecho a decidir del pueblo vasco, que tanto dice defender la formación jeltzale. Han dejado bien clara la nula disposición de este partido a defender los símbolos que representan a todo un pueblo. Además esta nueva imposición supone un nuevo ataque al derecho a decidir de todo este pueblo, derecho que tanto dice defender el PNV”, eta azkena eta ez da denbora asko: “el pueblo vasco considera que el PNV se arrodilla ante la bandera española. Cuantos

gudaris también del PNV dieron la vida en contra de la imposición de la bandera española. El PNV siempre acata y se arrodilla.”

Nik hau gogora ekarri nahi izan dut eta ez hau bakarrik, azkeneko legealdi honetako lau urteotan ere, dudarik ez dut zure gogoaren kontra, lau aldiz uste dut, dela leialtasuna eskatu diezue hemengo zinegotziei, erregeari eta espainiar Konstituzioari. Nik uste dut inportantea dela, alderdien arteko harremanak eta berdin pentsatzen ez dutenen harremanak ez urratzeko behintzat balio dezala. Iruditzen zait garrantzizkoa dela gauza hauek kontuan hartzea, gure arteko harremanak gehiago ez zapuzteko. Guk mozioaren alde egingo dugu.”

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 14 (BILDU, EAJ, H1, ARALAR)

Aurkako botoak: 3 (PSE-EE/PSOE, PP)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da mozioa.

9.- ALKATEAREN EBAZPENAK. 2015eko urtarrilaren 19tik 2015eko otsailaren 25a bitarte emandako Ebazpenak (bi datak barne).

Ezagutzera eman dira, 2015eko urtarrilaren 19tik 2015eko otsailaren 25a bitarte emandako Ebazpenak (bi datak barne).

PREMIAZKO PUNTUA

Ezagutzera eman da, BAREAK Elkarteak aurkeztutako ondorengo mozioa:

“M^a Josefa Unanua Artolain anderea, BAREAK Beasaingo Merkatarien elkarteko lehendakaria, jakinarazpenetarako Zaldizurreta, 5 - 20200 Beasain helbidearekin, hurrengo erakundeek eratutako plataformako ordezkariarekin:

ECA-OCUV kontsumitzaile antolaketa.

EKE-a kontsumitzaile antolaketa.

Euskadiko Merkatarik Elkarteen Konfederazioa, Euskal dendak.

Bizkaiko Merkatarik Elkarteen Federazioa, Bizkaidendak.

Gipuzkoako Merkatarik Elkartea, Dendartea.

ELA sindikatua.

LAB sindikatua.

CC.00 sindikatua.

UGT sindikatua.

7/1994 Merkataritza aktibitatearen buruzko Legearen ustezko Laugarren Aldaketari buruzko kezka jartzen dugu zure ezagueran eta 2014ko irailaren 1eko erabakia, Merkataritza eta Turismoko Sailburuorderena, non erabakia publikoa egiten den, Bilboko udalean, etorri turistiko handiko zonei buruzkoa, merkataritza ordutegien aldetik.

Proposamen honen jatorria, "etorri turistiko handiko zonetako" aurreikuspenetatik ondorioztatutako beharrian okerra da 20/2012 Errege-Dekretu-Lege-an (aurrekontu egonkortasuna eta lehiaren sustapeneko neurriak bermatzeko, uztailaren 13koa) eta 8/2014 Errege-Dekretu-Legean (hazkunderako, lehiarako eta eraginkortasunerako presazko neurrien onespenekoa, uztailaren 4koa) jasoa.

Beharrian okerra diogu, Eusko Jaurlaritzako merkataritzan inguruko konpetentzien inbasio argia delako.

Puntu hori alde batera utziz, Errege-Dekretu-Lege horiek duen transposizio zorrotzak, hurrengo hauetan ditu ondorioak:

1. Generoaren aldetik, emakumezkoak nagusi diren sektore batean (okupazioaren %63) eta haien lanaldiak aldaketak jasango dituela jakinik, atsedenerako eskubideari eragingo lioke eta bizitza familiarra eta bizitza laborala zailduko lituzke.

2. Barne merkataritza merkataritza turistiko bilakatzea. Horrek legegintzan esku-hartze bat suposatuko luke, gastu publikoaren transferentzia bat guri eragiten digun zonetan.

3. 2.261 merkataritza establezimenduren suntsiketa eta 3.886 enpleguren galera hirigunetik kanpo.

4. Zerga bilketetan galera, izan ere, merkataritza establezimendu txiki asko, sedea hemen dutenak, itxi egingo lirateke (BEZ bilketan galerak, sozietate gaineko zergetan ga lerak, etab.). Gainera, alokatzeko prezioen gorakadak, merkataritza establezimenduen irteera eragingo du kaltetutako eremuetan.

5. Ingurumenaren iraunkortasunean eragina (energia kontsumoa eta ibilgailu pribatuaren erabilera handitu). Beste esperientzia batzuekin konparatzen baditugu, adibidez, Alemaniako kasuarekin, aldagai hauek bizitza laboralarekin batera kontuan hartzen dira araututako ordutegiak sortuz.

Egoera hauek aztertuta, horiei buruzko eranskina bidaltzen dizuegu (emandako aldarrikapenekin). Eusko Jaurlaritzan eta Eusko Legebiltzarrean ahalik eta arinen mozio bat aurkezteko eskatzen dizuegu, aipatutako aurrekarietan oinarrituz:

1. Euskadiko autogobernuaren eta merkataritzaren inguruko konpetentzia propioen defentsan, Konstituzio Auzitegian merkataritzako eta turismoko aurreikuspenak errekurritzeko, 20/2012 Errege-Dekretu-Legean (aurrekontu egonkortasuna eta lehiaren sustapeneko neurriak bermatzeko, uztailaren 13ko) eta 8/2014 Errege-Dekretu-Legean (hazkunderako, lehiarako eta

eraginkortasunerako presazko neurrien onespenekoa, uztailaren 4koa) jasota daudenak”.

2. *2014ko irailaren 1eko EBAZPENA baliogabetzeko, Merkataritza eta Turismoko sailburuordearena, non Bilboko udalean etorri turistiko handiko zonei buruzko erabakia publikoa egiten den, merkataritza ordutegiei dagokiona.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros jaunak (PP): “me voy a abstener porque esta moción se basa en el tratamiento comercial para las capitales.”

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 16 (BILDU, EAJ, PSE-EE/PSOE, H1, ARALAR)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 1 (PP)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da mozioa.

10.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

GAZTE LOKALEN ARAUDIA

Publikoan dagoen pertsonak esan du gauza bat araudia egitea dela eta beste bat araudi horretan ezartzen baldintzak betetzen diren kontrolatzea. Zinegotzien telefonoa ematea eskatzen du goizeko ordu biak edo hiruretan zarata dagoenean deitzeko. Orain ez dagoela hainbeste arazo dio, euria dela eta, baina ez dela horrela eguraldi ona egiten duenean.

Aitor Larburu jaunak (BILDU): “Lehen arazoa zen ordenantzarik ez zegoela. Orain nola kontrolatu behar dugun. Denbora pixka bat behar da ordenantzaren garapena nolakoa den ikusteko.

Hitza hartu duen pertsonari esan dio berak ere aukera izan duela ordenantzari ekarpenak egiteko.”

Alkatea jaunak (BILDU): “Hor bi baliabide ditugu. Egunen zehar udaltzainek daude eta gauetan ertzaintza. Ikusten badu arazoak daudela, neurriak hartu beharko lirateke. Soinu arazoak egon ezkerreko Udalak badu kontusaila zarata neurketak egiteko. Hori bide bat izango litzateke eta hori bi ikuspegi egongo lirateke, batzuk esango dute ez dutela hotsik ateratzen besteak berriz hotsa ateratzen dutela. Orduan, neurgailu objektiboa jarriko litzateke eta horrek definituko du zein hotsa ateratzen duten. Adibide bat emateagatik eta momentuan bururatzen zaiena. Horrelako bideak jorratu daitezkeela iruditzen zait ordenantza martxan jarri eta gero.

Publikoan dagoen pertsonak: “Esango dizuet, baina telefonoak eman, arpa jotzeko zuei niri ere jotzen badie.”

Eta tratatzeko besterik ezean, bileran gaueko zortziak eta hogeita bostean amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.

Eta tratatzeko besterik ezean, bileran gaueko zortziak eta hogeita bostean amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.